
NESKAK
ERE
BAI!
Gizon zein emakume
du trebetasuna.
Landu behar duguna
da Berdintasuna.

Pii, piiiii!!! jo zuen iratzargailuak. Goizeko zortzi terdiak ziren. Paule gosaltzera joan behar zuen eta gero eskolarantz abiatu. Baina lehenik, lehiotik begiratu zuen. Oso egun eguzkitsua zen. Horregatik praka bakeruak eta niki gorri-zuria jantzi zuen ti-ta batean. Gero behera bajatu zen gosaltzera. Esnea, galletak, naranja zukua ... zuen gosaltzeko. Bost minutu geroago etxetik irten zen gurasoak agurtuz. Eskolara heldu eta anderenok esan zuen arratsaldean hitz egingo zutela ogibideei buruz. Goizeko orduak pasatu ziren eta arratsaldea heldu zen. Anderenok lehenik, Peruri galdetu zion ea zer nahi zuen handitan izan. Berak futbolaria erantzun zuen. Gero Pauleri galdetu eta neskatila zegidan auto disenatzailea erantzun zion. Bere gelako neska-mutil guztiak barreka hasi ziren, anderenoa ere bai. Denak isildu zirenean anderenok Pauleri esan zion lan hori mutilena zela eta auteak margotzen ona izanda ere ez ziotela onartuko neska zelako. Eskola amaitu eta gero Paule etxera joan zen oso triste. Neskatila egun horretatik aurrera ez zuen nahi horretaz hitz egin.

Paule 18 urte bete zituenean, proposatu zion buruari bere ametsa egia bihurtzea. Auto disenatzailea izatea.

Goiz hotz batean Paule gimnasiora joan aurretik bere gurasoei galdetu zien utziko bazieten auto disenatzailea izatea. Erantzuna, lan hura mutilena zela zen.

Paule berriro tristetu zen, hori entzundakoan. Neskatila bere motxila txikia hartu eta gimnasiorantz abiatu zen. Ibiltzen zihoala, bat-batean, aldizkaria erori zitzaion. Lenengo orrian jartzen zuen: "2011ko azaroaren 20an. Auto disenatzailea izateko, gitxa bete, Dreek Akademian. Ordutegia: 09:00etatik-17:00etara." Pauleri aukera aparta iruditu zitzaion. Orduan, Paule gimnasio orduak amaitu eta gero Dreek Akademiarantz abiatu zen. Gora-Behera ibili ondoren eraikin handi-handi bat ikusi zuen. "Dreek Akademia" jartzen zuen. Edifizio haretan sartu zenean, ezkerrean gizon potolo bat zegoen, sagar bat jaten. Neskak kaixo esan zion. Gizonak ahots grabe batekin, galdetu zion zer nahi zuen. Paulek esan zion gitxa bat nahi zuela. Gizona galdetu zion ea bere nebarentzako zen. Berak ezetz erantzun zuen. Berarentzako zela. Gizona barreka hasi zen. Ja, ja, ja!! Barre egiteari utzi zionean esan zion bera neska zela eta ezin zela auto disenatzailea izan. Paule haserre bizian esan zion zuzendariarekin nahi zuela hitz egin. Gero bestegizon bat etorri zen. Argala, altua eta indartsua zen. Gizonak galdetu zion zer nahi zuen. Neskak eskatu zion zuzendariarekin hitz egitea. Baiezkoa eman eta eraman zuen. Zuzendariak ikusi zuen neska ausarta eta errespetuz beteta eta aukera eman zion. Hurrengo egunerako proiektu bat eskatu eskatu eta Paulek disenua aurkeztu zuen epearen barne. Irtetzerakoan, atezainak barkamena eskatu zion iseka egin ziolako hasiera batean.

Azkenik, neskatila geroztik auto modelo asko egin zituen eta oso ospetsua bihurtu zen.